

# Urrezko etxea

Behin bazen gizon aberats bat. Jende guziek Sakelandi Jauna deitzen zuten. Bazituen etxe handi zenbait, teilaturaino diruz beteak. Etxe horietan metaturik zeuzkan urrezko eta zilarrezko **txanponak**, bai eta ere mundu guziko diru billeteak: dolarrak, euroak.... Goiz batez, Sakelandi jaunak etxe bat eraiki behar zuela erabaki zuen.

– Basamortuan egingen dut, ene sosarekin bakarrik izaiteko. Han, **ohoinek** ez naute atzemaiten ahalko. Jendeak erran zion:

– Baina basamortuan ez dago harririk, ez dago egurrik... Nola eraikiko duzu etxea? **Harez** ote?

– Ez, ez harez! diruz, bai!

15 Eta zurginei hola manatu zien:

– Ene etxeak hirurehun eta hirurogeita bost gela behar ditu: urteko egun bezainbat gela. Ene etxeak hamabi solairu behar ditu: urteko hilabete bezainbat solairu. Eta berrogeita hamabi leiho: urteko aste bezainbat leiho. Denak txanponez egizkizue.

20 – Eta teilatua zerez egingen dugu? – galdegin zuten langileek.

– Paperezko dirua harrazue: etxea billetez estaliko didazue.

Lanean hasi ziren: txanponak eta billeteak **kamioitraka ekarri** zituzten eta laurehun langile lanean ari izan ziren gau eta egun. Etxea laster bukatu zuten. Sakelandi jauna basamortuan gelditu

25 zen goxoki, bakar-bakarrik bere diru **zama** handiarekin.

Baina gau batez azantz bat entzun zuen: "Tan, tan, tan!", norbait atean joka.

– Lapurrak gara. Zure moltsa emazu edo hilen zaitugu!

**txanponak**: diru pezak.

**ohoinek**: lapurrek, ebasleek.

**Harez**: hondarrez, sablez.

**kamioitraka ekarri**: kamioiak beterik ekarri.

**zama**: meta.





– Nik moltsarik ez dut – erantzun zien gizon aberatsak.  
Etxe guzia miatu zuten lapurrek baina moltsarik ez zuten aurkitu. 30

– Basamortu guzia zeharkatu dugu eta ez dugu dirurik atzeman!  
Orduan ohoinak tristatu ziren eta basamortutik negarrez joan. Ne-  
garrak basamortuan erori ziren eta negar malko bakoitzetik lore  
bat sortu zen. Geroztik Sakelandi jaunak baratze ederra dauka.  
Beste gau batez, berriz ere norbait atean joka. 35

– Hela!

– Nor da hor?

– Otoi, Jauna, jan eta edan nahi dugu – zioten bi haurrek –  
basamortuan galduak gaude. 40

– Klask! – atea hesten du Sakelandi jaunak.

– Otoi, Jauna! Lagun gaitzazu!

Azkenean, gizon aberatsaren bihotza urratu zen:

– Dirurik ez dizuet emaiten ahal baina atea hartzen ahal duzue;  
pisua da baina urrezkoa.

Haurrak beren herrira itzuli ziren; atea saldurik, janariak, eda- 45  
riak, jantziak eta behar guziak erosi zituzten.

Orduan, beste jende behartsu batzuk basamortura joan ziren.  
Batek urrezko leiho bat ukan zuen, beste batek zilarrezko tximi-  
nia, hirugarren batek urrezko balkoia...

Pixkanaka, mundu guziko **erromesak** etorri arau, etxe eder hura 50  
desagertu zitzaion Sakelandi jaunari. Alabaina, denek etxearen  
puska bat eramaiten zuten.

Beti basamortuan bizi da Sakelandi jauna baina orain oihalezko  
etxe ttipi batean, **dohatsu** eta bihotza arin.

**erromesak**: behartsuak,  
pobreak.

**dohatsu**: zoriontsu.

Hachette argitaletxeko

*Une maison dans le désert* ipuinetik egokitua.



## 1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Nor da Sakelandi jauna ?
- Zergatik etxea basamortuan egin nahi du ?
- Nolako etxea izanen da Sakelandi jaunarena ?
- Zergatik lapurrak gau batez tristatu ziren ?
- Zergatik orain oihalezko etxe ttipi batean bizi da Sakelandi jauna ?
- Zergatik orain dohatsu bizi da eta bihotza arin ?

## 2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

► Zifra emaiozu zenbaki bakoitzari eta taula guzia kaierean kopia.

hamar	10	laurogeita hamazazpi	....
berrogei	....	ehun eta bost	....
hirurogei	....	hirurehun eta hogeita bi	....
hogeita hamar	....	.....	25

► Orain alderantziz egizu.

.....	8	.....	46
.....	16	.....	74
.....	5	.....	89
.....	27	.....	125

► Egunak eta hilabeteak bi zutabetan lerroka.

Egunak	Hilabeteak	

